



**Zumaia Udala**

2015ILPO0003-005-001

**ZUMAIAKO UDALA  
IRAGARKIA**

**LANBIDEREN BITARTEZ ZUMAIAKO UDALEKO TURISMO BULEGORAKO EKAINAREN 15ETIK IRAILAREN 15ERA BITARTERAKO TURISMO TEKNIKARI-LAGUNTZAILE BATEN KONTRATAZIOA ETA ETORKIZUNEAN LANPOSTU HORRETAN SORTU DAITEZKEEN ALDI BATERAKO BEHARRAK BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

2015eko apirilaren 9ko 269/2015 zenbakidun Alkate Dekretu bidez, Zumaia Udaleko Turismo Bulegorako, ekainaren 15etik irailaren 15era bitarterako, turismo teknikari-laguntzaile baten kontratazioa eta etorkizunean lanpostu horretan sortu daitezkeen aldi baterako beharrak betetzeko ondoren zehazten den prozedura arautu da:

**AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA  
ANUNCIO**

**PROCESO SELECTIVO A TRAVÉS DE LANBIDE PARA LA REALIZACIÓN DE LA CONTRATACIÓN DESDE EL 15 DE JUNIO HASTA EL 15 DE SEPTIEMBRE DE UN/UNA TÉCNICO AUXILIAR DE TURISMO PARA LA OFICINA DE TURISMO DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA ASÍ COMO PARA LA COBERTURA DE FUTURAS NECESIDADES TEMPORALES QUE PUEDAN SURGIR EN EL PUESTO.**

Mediante Decreto de Alcaldía 269/2015 de fecha 9 de abril de 2015, se ha adoptado el acuerdo relativo al proceso selectivo para la cobertura de la contratación desde el 15 de junio hasta el 15 de septiembre de un/una técnico auxiliar de turismo para la Oficina de Turismo del Ayuntamiento de Zumaia así como la cobertura de necesidades temporales futuras que puedan surgir en el puesto. El proceso se señala a continuación:



**ZUMAIAKO UDALA. TURISMO BULEGORAKO EKAINAREN 15ETIK IRAILAREN 15ERA BITARTERAKO TURISMO TEKNIKARI-LAGUNTZAILE BATEN KONTRATAZIOA ETA ETORKIZUNEAN LANPOSTU HORRETAN SORTU DAITEZKEEN ALDI BATERAKO BEHARRAK BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA.**

#### **LAN-ESKAINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

**1.- LAN-ESKAINTZA LANBIDEN ETA ZUMAIAKO UDALEKO [www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) WEBGUNEAN ARGITARATUKO DA.**

**2.- IZEN-EMATEAK: LANBIDEN EGIN BEHARKO DIRA [APIRILAREN 9TIK APIRILAREN 24RA, BIAK BARNE.](#)**

#### **LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:**

##### **Lanpostuaren ardurak:**

##### **Lanpostuaren oinarritzko funtzioa:**

*Jendeari turismo- eta kultura-eskaintzari eta Udalerriak eskaintzen dituen gainerako eremu eta zerbitzuei buruzko informazioa ematea, ahalik eta erarik zabal eta zehatzenean.*

##### **Zeregin espezifikoak:**

- Turismo- eta kultura-eskaintzari buruzko informazioa bildu eta zabaltzea, eta informazioa antolatu eta ongi ordenatuta prozesatzea.
- Eskatzen dutenei erantzutea eta informazioa bidaltzea (pertsonalki, telefonoz, posta elektronikoz eta abar).
- Turismo Bulegoak eta Udalaren beste sail batzuek sortu eta banatutako produktuak saltzea eta salmentak kontrolatzea.
- Udalerriko ostalaritza-sektorearekin harremanetan egotea, okupazio-mailari buruzko hileko informazioa eskatzea eta sektorerako interesgarria izan daitekeen informazioa bidaltzea.
- Bisitaldi gidatuen eta txangoen erreserbak, bertan behera utzitakoak eta ordainketak kontrolatzea.
- Turismo Bulegoaren webgunearen diseinuan parte hartzea eta webguneetako informazioa kontrolatzea.
- Informazioa bildu eta eguneratzea, liburuxkak egiteko edo zaharrak eguneratzeko.



## Zumaia Udal

2015ILPO0003-005-001

- Informazioa eskatzea, eta kontsultak eta informazio-bidalketa guztiak erregistratzea (lehenik paperean, eta ondoren "itourbask" Euskadiko Turismo Bulegoen Sarearen webgunean).
- Udalaz kanpoko erakundeen jarduerak antolatzen laguntzea, eta inskripzioaz, produktu eta sarreren salmentez eta abar arduratzea.
- Hornitzaile eta zerbitzu turistikoaren datu-basea eguneratuta edukitzea, Kalitate Ziurtagiriari dagokion dokumentazioan eskatutako maiztasunarekin.
- Ezinbesteko informazioa Bulegoko jendearentzat eskuragarri dagoela ziurtatzea, falta denean biltegitik ateratzea, eta kontsumoa erregistratzea.
- Bisitaldietan eta bidaiak gidatuetan parte hartu dutenek betetako inkestak erregistro-programan sartzea.
- Era berean, agintzen zaizkion zereginak egitea, lanpostua lortzeko eta betetzeko eskatzen den kalifikazioarekin bat datozenak.

**Lanpostuaren baldintza ekonomikoak:** hileko 2154,53€ gordinak, aintzinasuna eta plusak aparte.

**Lanaldia: %100ekoa.** Zerbitzuaren beharren arabera moldatuko da egutegia.

### Lanpostua betetzeko ezinbesteko baldintzak:

Eskatzen den **gutxieneko ikasketa maila:** Batxilergoa edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketa edukitzea, edota indarrean dagoen legerian parekotzat hartutako tituluren bat edukitzea.

Eskatzen diren hizkuntza mailak:

- Euskara: **3. HE** edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.
- Frantsesa: **DELFB1** edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.
- Ingelesa: **First Certificate** edo baliokidea den tituluaren jabe izatea.

### HAUTAKETA PROZESUA:

Lanbidek Zumaia Udalari ezinbesteko baldintzak betetzen dituzten hautagaiei buruzko informazioa bidali ondoren, lehiaketa prozesua abian jarriko da eta ondoren zehazten diren merituak baloratuko dira:

### IKASKETAK/IKASTAROAK:

- 1- **Turismo diplomaturaren** titulua aurkezten dutenek 4 puntu lortuko dituzte.



## 2- Informatika:

- Microsoft ofimatika oinarriko maila it-txartel ziurtagiri bakoitzeko 0,25 puntu.
- Microsoft ofimatika maila aurreratu it-txartel ziurtagiri bakoitzeko 0,50 puntu
- Microsoft ofimatika maila bakar it-txartel ziurtagiri bakoitzeko 0,25 puntu
- Internet eta posta it-txartel ziurtagiri bakoitzeko 0,25 puntu.

Oharra: aplikazio mota bakoitzeko (word, excel, access...) ziurtagiri maila bat baino gehiago aurkezten den kasuetan, puntuazio altuena bakarrik hartuko da kontuan.

Atal honetan gehienez ere 2 puntu lortu ahal izango dira.

## 3- Hizkuntzak:

- Ingelesean eta frantsesean eskatutakoa baino goragoko mailak horrela baloratuko dira:

C1 maila: puntu 1, maila eta hizkuntza bakoitzeko.

C2 maila: 1,5 puntu, maila eta hizkuntza bakoitzeko.

- Frantsesean eskatutakoa baino goragoko mailak horrela baloratuko dira:

B2 maila: 0,5 puntu, maila eta hizkuntza bakoitzeko.

C1 maila: puntu 1 maila eta hizkuntza bakoitzeko.

C2 maila: 1,5 puntu, maila eta hizkuntza bakoitzeko.

- Era berean, katalana, alemana eta italiera baloratuko dira honako maila hauek egiaztatuz gero:

B1 maila: 0,5 puntu, maila eta hizkuntza bakoitzeko.

B2 maila: puntu 1 maila eta hizkuntza bakoitzeko.

Atal honetan gehienez ere 3 puntu lortu ahal izango dira.

## 4- Ikastaroak:

Prestakuntza-ikastaro, jardunaldi eta bestelakoetan parte hartu izana balioetsiko da, baldin eta lanpostuaren zereginekin zuzeneko zerikusia badute eta herri-administrazioaren eskolek, unibertsitateek edo beste herri-administrazio batzuek antolatuta edo homologatuta badaude. Iraupena ere hartuko da kontuan, eta honako baremo hau aplikatuko da:



- Hogeia (20) eta berrogeita hamar (50) ordu bitartekoak: 0,10 puntu ikastaroko.
- Berrogeita hamaika (51) eta ehun (100) ordu bitartekoak: 0,25 puntu ikastaroko.
- Ehun eta bat (101) eta berrehun (200) ordu bitartekoak: 1 puntu ikastaroko.
- Berrehun (200) ordutik gorakoak: 1,5 puntu ikastaroko.

Atal honetan gehienez ere 3 puntu lortu ahal izango dira.

#### **LAN-ESPERIENTZIA:**

Herri-administrazioan egindako zerbitzuak, beti ere deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan: 0,50 puntu hilabeteko **(ez da zatiki txikiagorik aintzat hartuko)**.

Erakunde pribatuetan egindako zerbitzuak beti ere deialdi honen xede den lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan, 0,30 puntu hilabeteko **(ez da zatiki txikiagorik aintzat hartuko)**.

Atal honetan gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira.

Lanbiden lan-eskaintza argitaratzen den egunaren aurreko egunerarte izango dira kontuan hartuko diren merituenak.

#### **ELKARRIZKETA. Praktikoa.** Gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango dira.

Merituen balorazioa egin ondoren, lanpostuaren ardurekin zerikusia duen elkarrizketa praktikoa egingo da. Elkarrizketa, ondoren zehazten den gaitegian oinarrituko da:

1. Zumaiko turismo Bulegoa. Funtzioa eta eskaintzen dituen zerbitzuak.
2. Zumaiko baliabide turistikoak.
3. Gure eskualdea eta inguruak.
4. Zer da Geoparkea?

**Oharra:** Hautagaien kopurua altua izanez gero, epaimahaiak erabaki dezake elkarrizketa, merituen puntuazio altuena lortu duten hautagai multzo bati soilik egitea.

Zumaian, 2015eko apirilaren 9an  
Izaskun Korta Arcelus  
Giza Baliabide teknikaria